

# Zintzilik'

Uxue Alberdi

**B**errogei metro inguru faltako zaizkit, berrogei metro eta hamahiru letra.

Egia esan, oraindik ez naiz guztiz ohitu. Inurritz betetzen zait eztarria zintzilik geratzen naizen bakoitzean, eta eskuak izerditzen zaizkit, labain egiten dit sokak esku-ahurretan. Nagusiak dio lasai ibil gaitzkeela, segurua dela. Seguru baietz, esaten diot nik. Kaskoa badugu, eta segurtasun-soka ere bai gerrian. Baina baditugu, baita ere, berrogei metro oinen azpian, edo gehiago, batzuetan. Z, U, Z, E, N eta B hizkiak jarri ditut dagoeneko.

Ez da erraza. Lehenengo, teilatuan uzten ditugu letra guztiak. Kaskoa jantzi, soka gerrira lotu, inurriak irentsi eta behar den altueraraino jaisten gara, lehenengo hizkia kokatzeko. Lehenengo hizkia da beti okerrena, goi-goian jarri behar izaten da-eta, teilatupean, enaren habien azpian. Zorabiatu egiten du lehenengo hizkiak. Gaur Z izan da aurrena: zure izenaren inaziala.

Lehenengo hizkia prest dagoenean gora igotzen gara berrito, teilatuta, eta hurrengo letra hartzen dugu. Eta horrela letra guztiak paretari itsatsi arte. Lokotsak biltzen bat jaso orduko otarrera itzuli behar izaten den bezala itzuli behar izaten dugu guk teilatuta, eta zorabioa ez da sekula joaten, teilatua beti garaiera berean baitago, zerutik gertuegi.

Badakit ezin duzula sinetsi lanbide honetan ari naizenik. Normala. Atzo joan izan bagina bezala gogoratzen dut Asturiasa egin genuen bidaia, zure C15ean. Lo-zakua, mendiko botak, kosto apur bat... Beste ezer behar al genuen, ba? Nik ez, behintzat. Naranjo de Bulnes, hantxe izan zen. Lehen egunetan paseotxoak baino ez genituen egin, Cares-eko buelta, Cabrales-era irteera... Baina egun hartan eskalatu egin behar genuela sartu zitzaizun buruan. Ile labur-laburrez estalitako buru txiki horretan. Eta zer egin behar nuen nik? Barrabilei eutsi eta beldurra katu-oinetan ezkutatu, horixe. Baina katu-hankak

txikiegiak eta estuegiak ziren nire bertigoa oso-osorik gordetzeko, eta, azkenean, barregarri gelditu nintzen zure aurrean.

Gora begiratu eta han ikusten nituen zure izterrak eta besoak, dardara-izpirik gabe, heltzeko zein harri aukeratu kromosometan idatzita bazenu bezala; eta zure ipurmasail biribilak, gero eta gorago.

Baina ezin izan nion eutsi eta, zure aholkuari jaramonik egin gabe, aitortzen dut, behera begiratu nuen. Zin dagizut zure autoa ez zela nire atzazal txikia baino handiagoa ikusten han goitik. Ez nuen nahita egin: ezkerreko mendia eskuinekoarekin elkartu zitzaidan, koloreak nahastu egin ziren, izerdi hotza sentitu nuen lokietan eta puntu zuriak ikusten nituen leku guztietan. Orduan oihukatu nuen zure izena. Sabeletik atera zitzaizkidan zure izena osatzen duten hizki guztiak, banan-banan. Eskerrak berehala jaitsi eta, izerditan, besarkatu ninduzun.

Baina ikusten duzu, beldurra gainditu egiten omen dira, hein handi batean bai, behintzat. F letraren bila noa orain, eta batere dardararik gabe jarriko dut azkenekoaren azpian, zuzen-zuzen.

Zu psikologian matrikulatu baino pare bat aste lehenago erabaki nuen honetan hastea. Ez duzu sinetsiko, baina batere dardararik gabe pasa nuen jarri zidaten proba, katu-oinekin eta zazpi bizitzarekin jaio izan banintz bezala. Ez nintzen zorabiatu, ezta batere. Aitor izan zen beste karrera bat hasi zenuela esan zidana. Zoriontsu zenirudiela esan zidan, eta guapa zeundela, *badakizu, betiko begitxu horrekaz*.

Eta begira zer den patua: zure muturren aurrean eskalatzeko agindu didate. Letra hauek jartzeko, goitik behera, ezker aldean gaztelaniaz eta eskuin aldean euskaraz. Nire lanaren erruz azken astean egunero ikusten nauzu zuk, eta nik ere, ikusten ez zaitudan arren, badakit hor zaudela, eraikin honen pareko beste horretan, kristal lodiaren atzean. Badakit hor

1. XXVII. "Erretereria Hiria Ipuin Lehiaketa"ren 1. saria eta 25 urte azpiko egilearen ipuin irabazlea. Ereintza Elkarteak antolatuta eta Erretereriako Udalaren babesarekin.

Epaimahaia: Juan Gartzia eta Mirentxu Larrañaga.



zaudela, zure koadernoaren gainean erdi etzanda, letra oker eta infantilarekin psikologiari buruzko apunteak hartzen. Eta badakit, tarteka, nigan pentsatzen duzula; zer patologia dudan erabakitzeke bada ere. Izaera bipolarra? Nerbio-desoreka? Zein hautatu duzu niretzat, rubia?

Honezkero ohartuko zinenez, egunero jantzi dut elkarrekin urtebete egin genuenean oparitu zenidan kamiseta gorria. Eraikinaren fatxada erabat zurian hobeto ikus nazazun. Puntu gorri bat zuriaren gainean: horixe naiz ni. Orri zurien gainean egindako akatsak gorritz markatu ohi dituzte irakasleek ere, ez da hala? Hori ote naiz ni zuretzat? Hori al diote zure psikologiako irakasleek? Dagoeneko ziurtatu al dizute akats bat baino ez nintzela izan zure bizitzan? Lasaiago zaude orain?

Beti gorrotatu izan ditut psikologoak, eta, errebotez, psikologia-ikasleak. Ezin diezu begietara begiratu, psikoanalizatu egiten zaituzte. Bi motatako jendeak bakarrik erabakitzen du karrera hori ikastea. A mota: beren burua onartzen ez dutenak. B mota: gainerakoak onartzen ez dituztenak. Eta zu, dudarik gabe, B motakoa zara. *Arazoa zeu zara*. Gogoratzen nola esan zenidan? Bulnesetik itzuli eta pare bat hila-betera izango zen, beste mutil harekin gehitxo ez ote zinen egoten galdetu nizunean.

Egun hartan ikasi nuen eskalatzen, lurretik mugitu gabe. Eskerrak eman beharko dizkizut, beraz. *Arazoa zeu zara* oihukatu, eta niri bizkarra emanda korrika joan zinenean bertigoa sentitu nuen, Naranjon bezala. Inguruan genituen eraikinak elkarrekin difuminatu ziren, eta oinek balantza egin zidaten zapaten barruan. Erori egingo nintzela sentitu nuen, eta oihi egin nizun, horma hartan zintzilik nengoela egin nuen bezala, erraietatik, zure izenaren hizki bakoitza sabeletik erreskatatuz. Baina ez zinen itzuli, egun hartan ez zenuen zirkinik egin ni salbatzeko, eta erortzen utzi ninduzun, nire gorputza horman behera amiltzen utzi zenuen.

Bost baino ez zaizkit falta gaurkoa amaitzeko.

L. Lier omen du izena, ezta? Zer moduz doakizu berarekin? Joaten al zarete Asturiasa oporretan? C15ean? Eta egiten al diozu espinakazko lasagna? Egiten al diozu maitasuna behatz loditik hasita? Esan didate eskalatzaile profesionala dela. Onenetakoa. Pou anaiekin batera omen doa hurrena Yosemiteara, ezta? Argazki politikak aterako dizkiozu, seguru.

T. Beste bi baino ez. Tabernan izan nintzen lehen-goan. Amaia zegoen barran eta esan zidan ez zarela aspaldian hara agertzen. Jada ez al zaizu gure taberna gustatzen? Te bat eskatu nion. Interesgarria da ikustea ura, ur hutsa, nola beste zerbait bihurtzen den kolore apur bat emango dion poltsatxo bat barruan sartuta. Beti pentsatu izan dut tea ez dela edari bat, puta bat bezala makillatutako ura baino. Zuk ere zeinen erraz aldatzen duzun te-poltsaz, e? Beste mutil bat aukeratu eta zure bizitzari kolorea aldatu. Kitto. Begira zeinen erraz.

E. Ez dut zu gaizki sentitzeko egiten. Grabitatea da, beretik gabe, edo inertzia.

A. Azkena, kitto. Ondo ikusi al duzu?

Z

U

Z

E

N

B

I

D

E

F

A

K

U

L

T

A

T

E

A

Amaitu dut. Goitik behera. 19 letra jarri ditut Zuzenbide Fakultateko fatxadan, Psikologiakoaren parean. Jada ez dago hizkirik teilatuan. Beste behin igotzea baino ez zait falta, materiala jasotzeko.

Lan-istripu bat gehiago, maitea, urriko bosgarrena. Soka zaharra zen, zer egingo zaio. Ondo ikusi duzu? Hemen ez da psikologiarik behar, laztana, hemen justizia behar da. ■



## Uxue Alberdi:

- Orain momentuan "Testuketan" literatur programako esatari lanetan ari naiz Herri Irratian.
- "Hamaika makila" eleberria idazten ari naiz, apirilean eman zidaten Joseba Jaka literatur bekari esker.
- Bertsotan jarraitzen dut.
- Bertsoa eta literatura uztartzen dituen emanaldi bat prestatzen ari gara 3 lagunen artean, eta datorren urtetik aurrera hasiko gara ikuskizunekin.
- Aristides Vargas idazle argentinarren antzerki lan bat itzultzen ari naiz Kukubiltxo antzerki talderako.
- Zenbait hedabidetan kolaboratzen dut noizbehinka.

